# BERRIGARA

73. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1994, abenduak 23

## Badator Olentzero!!




OPEL VECTRA BERRIA




merit

GUTXIK EMATEN DUTE
HAINBESTE HAIN GUTXIREN
TRUKE.

OPEL BANATZAILE OFICIALAK,
ESPERIENTZIAZ ONENAK.

OPEL

10º URTEURRENA

TALLERES
OLA

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
**BERGARA** (Gipuzkoa)




**GIARTZU**
**Dermoestetika Zentrua**

*Egin dezagun topa...*
*Gabon zoriontsuak*
*izan ditzagun*

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**
JARDUN Elkartea.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19
**Zuzendaria:**
Gorka Elorza
**Erredakzioa:**
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
**Maketazioa:**
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
**Publizitatea:**
Alex Azkarate
**Harpidetzak:**
Gorka Elorza
**Testuen zuzenketak:**
Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien
**Erredakzio kontseilua:**
Miguel Angel Elkoroberezibar
Estepan Plazaola
Alex Labaien
Iñaki Eraña
**Komikiak:**
Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Alex Ugalde
Unai Azkarate
**Banaketa:**
Txantxangorri taldea

**Tirada:**
3.700 ale.
**Inprimategia:**
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
**Copyright:**
BERRIGARA
**Lege gordailua:**
SS 50/91
**ISSN:**
1130-6599

**BERRIGARAk** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E R B E R I D A ?

# RAFAEL HERRAN

## *Bedelkar Dendarien Elkarteko Presidentea*



**- Zelan doaz Gabonetako salmentak?**

- Bueno, oraingoz nahiko lasai baina kontutan izan askotan azken orduko gauza izaten dela. Dena den, azken egun hauetan mugimendu gehiago somatzen da.

**- Eskeintza berezirik egin duzue jendeak herrian eros dezan?**

- Bai, erosketekin batera boletoak banatzen ari gara eta 25.000 ptako. hamar sari izango dira datorren asteartean egingo dugun zozketan. Erosbono horiekin irabazleek Bedelkarreko komertzio ezberdinetan erosketak egin ahal izango dituzte.

**- Jendea kanpora irtetzen al da erostera?**

- Bai, oraindik ere irtetzen da askotan arrazoi jakin bat izan gabe, baina hor ere sektore ezberdinak izan behar dira kontutan. Jendeak gauza merkeagoak topa ditzake kanpoan, baina nere ustez Bergaran bertan badago prezio ezberdinetan zer erosi eta gainera ematen dugun zerbitzua oso ona da.

***"Bergaran badago zer erosi prezio eta zerbitzu onarekin gainera"***

I T U R R I O N E T I K

## PP Udal Hauteskundeetan Bergaran aurkezteko asmotan

Partido Popularrak Bergarako Udal Hauteskundeetara aurkezteko asmoa duela azaldu dio aste honetan BERRIGARAri. Pasa den urriaren 23ko Hauteskunde Autonomikoetan lortutako emaitzak kontutan izanik, popularrek hautagai zerrenda osatu nahi dute maiatzeko hauteskundetarako. Donostiako ordezkariek gaia aztertzen ari direla azaldu digute eta, zerrendan nortzuk izango diren aurreratu ezin bada ere, adierazi digute ia seguru PPren kandidatura egongo dela. Gogoratu aipatutako hauteskunde autonomikoetan PPk 436 boto izan zituela; emaitza horien arabera PPk zinegotzi bat lortuko luke.

E S A N D U T E

"Xenpelar sariaren irabazle Ainhoa Agirreazaldegi izateak ez nau batere harritzen. Nahiz eta Zortziko txikian motel antxean jardun zuen (besteek ere ez zuten milagro handirik egin), Zortziko nagusian oso ondo aritu zen, lehenengo bertsoarekin bete-betean asmatu zuelarik. Gartzelako gaian, konparaziorik gabe, onena. Azkena emanda egin zuen bertsoa oso maila altukoa da, edukinarekin bat gatozen ala ez beste kupel bateko sagardoa baldin bada ere. Gaia emanda kantatutako biak ere apartak dira"

**RUFINO IRAOLA**
Idazlea
EGUNKARIA

●

"Partaide zein kalitate aldetik Amodiozko Gutunen Lehiaketan iazko mailari eutsiko diogula uste dugu. Hori da behintzat gure asmoa. Euskal Herri guztitik bidali zizkiguten gutunak eta aurten ere Euskadiko bazter guztietara bidali ditugu oinarriak"

**GORKA ELORZA**
Jardunekoa
SEGURA IRRATIA

●




**EL ESPECIALISTA**
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.
Asteartea: 19.30 (Ikuslearen eguna).



**ROJO**
Osteguna: 20.00.



## Zinea

▼▼ **Sylvester Stallone** eta **Sharon Stone** momentuko aktorerik arrakastatsuenetarikoak elkarrekin lanean. Gobernuak hiltzera erakutsi omen zion lehergailuetan espezialista den *Ray Quick* ajenteari (**Stallone**); *Quick* prest azalduko da bere gurasoen hilketa mendekatu nahi duen *Mäy Munro* (**Stone**) laguntzeko... baina gauza ez da hor bakarrik geldituko. **James Woods** eta **Eric Roberts** Juliaren anaiarekin.

▼▼ *Azul* eta *Blanco*ren ondoren, **Krzystof Kieslowski**ren (argazkian) trilojiari amaiera ematen dion filma zine-klubean. **Irene Jacob** eta **Jean Louis Trintignant** protagonista direlarik, zuzendari poloniarrak bere ohizko gaiak planteatzen dizkigu: solidaritatea, bakardadea, justizia, amodioa. Bere azken filma dela esan du.

**Bergarako pintore** eta **marrazkilarien** erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxean urtarrilaren 1era arte. Herriko artistek (35 denera) beren estilo eta lan ezberdinak plazaratuko dituzte. Erakusketa ohizko ordutegiarekin izango da zabalik: 6etatik 8etara astebarruan eta 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara jaiegunetan.

## Deiak

▼ **Diapositibak.** Pol-Polek antolatuta, Joseba Egibarren *"Udazkena"* diapositiba emanaldia ostegunean, hilak 29, arratsaldeko 8etan UNEDen.

▼ **Abdon Juaristi**ren margo erakusketa Bilboko Caledonia Arte Galerian (Ercilla, 11) abenduaren 29ra arte.

▼ **Zeinu hizkuntza** ikastaroa urtarrilaren 10etik aurrera Bergarako Arans-Gui eskolan. Izen-ematea 5.000 pezeta. Argibide gehiago 76 27 03 telefonoan.

▼ **Miserableak**i buruzko argazki erakusketa Nahikarin. Ion Margcok ateratako argazkiak.

## Ogia

▼ **Igandea 25:** Ohizkoa denez, Eguberri eguna dela eta, igandean ez da ogirik izango.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Ostirala 23:** Camacho/Azkoaga.
▼ **Larunbata 24:** Puy/Español.
▼ **Igandea 25:** Puy/Corcuera.
▼ **Astelehena 26:** Guallar/Irizar.
▼ **Asteartea 27:** Estella/Amezua.
▼ **Asteazkena 28:** Mozos/Ruiz.
▼ **Osteguna 29:** Camacho/Morales.

MEMESA
phanton
IRIMO
ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA
SFK

# Gabonetako kontzertua

## *Udal Musika Banda, Aritzeta, Orkesta Sinfonikoa eta Orfeoiak eskainiko dute gaur San Pedron*

**Ohizkoa** den bezala, gaur gaueko Gabonetako Kontzertuak Udazken Kulturaleko ekitaldi musikalei amaiera emango die. Bertan herriko talde musikalek hartuko dute parte: Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Orkesta Sinfonikoak eta Bergarako Orfeoiak alegia, guztira 220 lagun ingururen partaidetzarekin. Talde bakoitzak hainbat pieza eskeiniko ditu eta amaitzeko, guztiek batera, Miguel González Bastidaren "Gabonetako estanpak" joko dute Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean. Azken honen hitzetan, *"1951n konposatu zen, Gabonetako gai euskaldunetan oinarrituta dago eta Bandarako orijinala baldin bada ere, abesbatzetarako arregloak egin ditugu, testua sartuz eta instrumentazioaren arabera ahotsetarako arregloak eginez".*



Herriko abesbatz eta musika taldeek Gabonetako Kontzertua eskainiko dute gaur, Udazken Kulturaleko azken ekitaldian.

Aurretik, Bandak eta Musika Eskolako irakaslea den Elisabeth Mendiaraz pianujoleak André Waigneinen "Three movements" izeneko lana joko dute. Ondoren, Aritzeta abesbatzak, ondoko lanak abestuko ditu Izaskun Labaienek zuzenduta: "2. kalez kale" (Pablo Sorozabal), "7 variazioni su canzone vasca" (Emil Cossetto), "All things bright and beautiful" (John Ruter), "Ave Maria" (Jabier Busto) eta "Maite" (Pablo Sorozabal). Jarraian, Alfredo Gonzálezek zuzentzen duen Orkesta Sinfonikoak "John Williams selection" izenburuko lana joko du. Alfredoren hitzetan, *"hasieran Tchaikowskyren "Andante Cantabile" iragarrita zegoen baina John Williams konpositoreak zinerako egin dituen hainbat lani errepasotxo bat ematea erabaki dugu: E.T., Presunto inocente, Jurassic Park, Indiana Jones, La lista de Schindler eta berriz ere E.T.rekin amaituko dugu".*

Bergarako Orfeoiak, berriz, David Azurzaren gidaritzapean, "The herald angels" (F. Mendelsohn), "Gloria" (sol klabeko mezakoa, F. Schubert), "Iesu dulcis memoria" (J. Vranken), "Dios te salve" (Arm. D. Azurza) eta "Abenduko ilaren" (Arm. E. Cosetto) abestuko ditu.

Sarrerak Plazan salduko dira gaur 7etatik aurrera. Kontzertua gaueko 10.30etan hasiko da.

Amets
Ford
• HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
• Zango erremolkeak
• Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak
Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

Zatoia Boutique
Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

BALDANA
ALBAITARITZA KLINIKA
TXAKURREI IDENTIFIKAZIORAKO MIKROTXIPAK JARTZEKO KANPAINA. ABENDUAREN 31ra ARTE.
OHARRA: DERRIGORREZKOA DA MIKROTXIP HAUEK JARTZEA.
Koldo Eleizalde, 28 ☎ 76 27 97 / 90 81 09 30

MEKOLALDE TABERNA
Jai zoriontsuak opa nahi dizkizuegu
ABENDUAREN 25ean ETA URTARRILAREN 1ean ITXI EGINGO DUGU. BARKATU ERAGOZPENAK.
Mekolalde z/g ☎ 76 50 18

## Emakumezkorik ez omen

Bristol, 94-XII-1

Beno, hasteko, agur bat Berrigaran lanian zabizten guztioi.

Komentarixo txiki bat eitxeko idazten dotzuet; noizian behin Berrigararen bat edo beste jasotzen dot lur galdu honetan, eta azkenengo jaso doten honetan datorren artikulu bati buruz galdera bat eitxia gustauko jaten.

"Parranda eguna" tituluakin dator eta 1972xan jaiotako bergararrak eindako bazkari bati buruzkoa da. Argazki bat dakar onduan eta jende mordua falta dela konturatu naiz. Nere galderia hau da: 1972xan ez zan neskarik jaio ala ez zien bazkarira gonbidatuak izan?

Pena bat benetan!

Laister arte eta segi gogor lanian.

MAIDER ELKORO

## Tapicerias Leber

93ko abenduan, Gabonak baino lehen, sofa oso itxuroso ez zegoela-eta tapizatzera eraman genuen San Antonioko Tapiceria Leber-era.

Urtarrilean ekarri zigun sofa tapiz berriarekin, dotore-dotore. Baina usteak ustel, eta astebetera sofa josturetatik askatzen hasi zen, hari guztiak eta telak bere lekutik irtetzen hasi ziren. Hori ikusita, eta 72.000 pezeta ordaindu genuela kontuan hartuz (gaur egun sofa berria erostea tapizatzea baino merkeagoa da) tapizeroari konpontzeko eskatu genion.

Beti bezain irribartsu, sinpatiko eta hitz politekin, funda edo tapiza eraman egin zuen, berri-berri lagako zigula esanez.

Zain eta zain egon gara, 25 bat buelta egin ditugu San Antoniora sofarekin zer gertatzen den galdetuz eta joan garen bakoitzean eman digun erantzuna hauxe izan da: "bihar eramango dizuet 7ak aldean".

Urtebete da sofa dontsua eraman zuela eta 365 egun pasa ondoren, bera da gure sofa eta 72.000 pezetaren jabe.

Beraz, kontuz!!! San Antonioko Tapicerias Leber-ekin.

J. L.
N.A.N. 15.378.701

## Oharrak

Eskuetan daukazun ale hau, urteko azken aurrekoa izango da, datorren ostiralean, hilak 30, kaleratuko baitugu azkena. Urteko lehenengo astean, Erregenetan, ordea, ez da alerik kaleratuko. Beraz, urtarrilaren 13an helduko da zure etxera 1994ko lehen BERRIGARA.

Bestalde, une honetan inprentan dagoen BERRIGARA GIDA 95, Bergara, Antzuola eta Elgetako zerbitzu publiko, kultur edota kirol elkarte eta merkataletxe, lantegi edota profesionalen telefonoak biltzen dituen liburutxoa, Errege bezperan helduko zaizu etxera. Bitartean, dasta ezazu gustora ale hau, Gabon zoriontsuak igaro ditzazu eta hurrengo astera arte.

## Tiiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



### ♦ Komiki Lehiaketa

JARDUN Elkarteko Kultur Taldeak antolatutako Komiki Lehiaketako sari banaketa egingo da datorren ostiralean, hilak 30, arratsaldeko 8etanPol-Poleko erakustokia. Erakusketa bertan izango da ikusgai urtarrilaren 8ra arte.

### ♦ Kontzertua Antzuolan

Antzuolako Udalak antolatuta, Musika Eskolako Akordoi Orkestak eta Orfeoi Gazteak Natibitate Eguneko kontzertua eskeiniko dute igandean 7etan Gure Errukizko Amaren Parrokian. Besteak beste, Hughes, Guridi, Sund, Sagarna, Azurza, Loewe, Albinoni, Porter, Strauss, edota González Bastidaren lanak eskeiniko dira.

**JAIOTAKOAK**

**Nerea Agirrezabal Urrutia**
Abenduak 9
**Maider Cabo Mulas**
Abenduak 11
**Izaskun Arriola Gutiérrez**
Abenduak 12
**Julen Etxaniz Ortiz**
Abenduak 17

**HILDAKOAK**

**Ascensión Jiménez Garcia**
Abenduak 14, 88 urte

# Labegaraietan Industrialdea suspertzeko hitzarmena sinatu zen


Astearteko Industrialdearen inguruko sinatze-ekitaldia.

Asteartean Zerrajera eta Arregiren Tejeriako terrenutan Industrialdea suspertzeko hitzarmena sinatu zuten Udalak, Unión Cerrajerak, Kutxak eta Lucio Arregik. Bezperan, astelehenean, alderdi guztiek aho batez onartu zuten hitzarmena Plenoan. Lortutako akordioaren arabera, Labegaraietan baztertuta dauden pabiloietan, 100.000 m2-ko azaleran, Industrialdea kokatu nahi da.

Udalak 18.000 m2 erosi dizkie Kutxa eta UCEM Korporazioari, m2-ko 3.000 pta. ordainduz. 13.000 m2 pabiloiak eraikitzeko bideratuko dira. Kutxa, 18.432 m2kin geratuko da eta Lucio Arregi 7.767 m2kin. Bestalde, zenbait tximini, dorrea, erlojua, laminazio plantako fatxada eta honen ondokoa dagoenetan mantentzea jasotzen da.

Udalak Industrialdea suspertuko duen elkarte publiko bat sortuko du; SPRIk elkarte honen % 51a ordezkatuko du, Diputazioak % 24,5a eta Udalak beste % 24,5a.

Industrialdearekin jarraituz, asteleheneko Plenoan Jesus Mari Garitanok (HB) bere haserrea azaldu zuen eraman den prozedurarekin, *"gure alderdiak ez baitu informaziorik jaso, marjinatu egin gaituzue"*. Victoriano Gallastegi alkateak informazio hori gaia lotuta dagoenean eman behar dela erantzun zion.

Bestalde, EAk eta HBk Koldo Eleizaldeko 2.etik 34ra bitarteko atarietako bizilagunen ur zerbitzua hobetzeko mozioa aurkeztu zuten. Antza denez, urak ez dauka beharrezko presiorik eta mozioan presio hori lortzeko bonbeo gastuak Udalaren gain joatea, orainarte ordaindutakoa bueltatzea eta Udalak zerbitzu eskasa jasotzen dutela kontutan izan dezala eskatzen da. Mozioa ez zen onartu, eta HBk ere mozioarekin guztiz ados ez zegoela adierazi zuen. Alkateak arazoa aspaldikoa denez, informe tekniko juridiko bat egingo dela aurreratu zuen.

Erregu eta galderetan, Juan Daniel Kortabarriak (HB) egunsarien (dietak) kontrola nola eramaten den galdetu zuen eta zalantzan jarri zuen Alvaro Esparzak (PSE-EE) aitortutako kilometrajea. Era berean, zinegotziak beren lanetatik libratzeko egiten diren ordainketengatik ere galdetu zuen, Xabier Gallastegiren (EAJ) kasua esate baterako. Alkateak beharrezko kontrolak egiten direla, Udaleko zinegotziengan konfiantza osoa duela eta gastu horiek Udalaren onerako egiten direla ziur dagoela erantzun zuen.

SIRIMIRI
jatetxea
PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.
Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

AGOITZ
Tapizdenda
San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

### ◆ Kiroldegia itxita

Labegaraietako Kiroldegia astelehenera arte ez da zabalduko bertan egiten ari diren hobekuntza lanak direla eta. Era berean, datorren larunbatean, hilak 31, itxita egongo da.

### ◆ San Silvestre krossa

Datorren larunbatean, hilak 31, San Silvestre kross herrikoia jokatuko da Bergaran. Irteera arratsaldeko 5etan Plazan izango da. Lasterketa hasi baino orduerdi lehenago eman beharko da izena (izen-ematea doan). Argibide gehiago 76 39 42 eta 76 20 31 telefonoetan.

### ◆ Jarrairen manifestazioa

Jarraik dei egin du urtarrilaren 5ean 7.30etan Ertzaintzaren aurka Bergaran egingo den manifestazioan parte hartzeko. Atzo emandako prentsaurrean Jarraik salatu egin zuen Ertzaintzak gazteria, ikaslegoa, euskara edota intsumisioaren aurrean azaltzen duen jarrera. Era berean, Jarraiko kideek azpimarratu egin zuten manifestazioa giro alai eta erreibindikatiboan egin nahi dela.

### ◆ Bi bergarar, sailburu

EAJ, PSE-EE eta EAk osatuko duten euskal gobernuan, bi bergarar izan daitezke sailburu. Azken informazioen arabera, EAJk Jabier Retegi izendatuko luke Industria Sailburu eta EAk, berriz, Mari Karmen Gallastegi Hezkuntza Sailburu izateko. Jabier Retegi sailburuorde izan da legealdi honetan eta Mari Carmen Gallastegi Ekonomia Sailburu izan zen orain 3 urte.




Goiko argazkian, Idolazen batzar bateko irudi bat.

# Idolazek Gaboneterako hainbat ekitaldi antolatu ditu

*Joserra Gartzia eta Xabier Amuriza izango dira Antzuolan*

Iaz antolatutako ekitaldiekin lortutako arrakastari eutsi nahirik, eta gazte gehienek dituzten Gabonetako oporrak aprobetxatuz, Idolaz Antzuolako euskara elkarteak hainbat kultur ekintza iragarri ditu datozen egunotarako.

Horrela, astelehenean, hilak 26, pailazoak izango dira arratsaldeko 4retatik aurrera liburutegian; "Oihulari Klown" taldeak "Alfonbra majikoa" izeneko lana eskeiniko du. Ondoren, 5etan, herri jolasak egingo dira plazan eta jarraian hurbiltzen diren guztientzat txokolatada eta oparien zozketa.

Asteartean, berriz, solasaldi interesgarri bat izango da 7etan Udaletxeko Areto nagusian, Joserra Gartziak eta Xabier Amuritzak "Umorea bertsolaritzan" gaiari buruz jardungo dute.

Eta programazioari amaiera emateko, asteazkenerako, 8etatik 9etara, txikiteoa iragarri da eta gaueko 9etan Patxi Saiz kantariak gidatutako kantu afaria Jubilatuetan. Bazkideek 1.000 pta. ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 1.300. Afarirako txartelak Gaztetxean, Jubilatuetan, Surpen eta Larrean jaso daitezke eta izena emateko epea astelehenean, hilak 26, amaituko da.

Idolaz euskara elkarteak adin guztietako pertsonei zuzendutako ekitaldiak antolatu nahi izan ditu. Beraz, gonbidapena luzatu nahi die antzuolar guztiei ekitaldietara joateko. Hortaz, badakizue, animatu eta parte hartu urteari amaiera alai-alaia emateko.

iRUDi
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

IZADI PILI GISASOLA
Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83
Santiveri
Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua

ARREGI
Eraikuntza materialeak
Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93

# Jardunek Amodiozko Gutunen III. Lehiaketa konbokatu du

*Lanak jasotzeko epea abenduaren 26an amaituko da*

JARDUNek Amodiozko Gutunen III. Lehiaketa konbokatu du. Bertan 1980an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte, lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dira eta DIN A-4 orrietan eskuz zein makinaz aurkeztu ahal izango dira. Lanen luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan.

Lanean ez da egilearen daturik jarriko, soilik lema bat. Egilearen datuak sobre itxi batean sartuko dira eta sobre horren azalean lanean jarri den lema bera jarriko da.

Lanak eta egilearen datuak dituen sobrea beste sobre haundiago batean sartuta, honako helbide honetara bidali beharko dira: Amodiozko Gutunen III. Berrigara Lehiaketa, Jardun Elkartea, Masterreka 13, behea, 20570 Bergara.

Epea urtarrilaren 26an amaituko da eta sari-ematea otsailaren 14an egingo da. Irabazleak 75.000 pta. eskuratuko ditu, bigarrenak 40.000 eta bergarar onenak, berriz, 25.000 pezeta. Jardunek lan guztiak argitaratzeko aukera izango du. Argazkian, iazko irabazleak.




### ◆ Iraurgik eskaparate lehiaketa irabazi

Iraurgik irabazi du Udaleko Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria Batzordeak antolatutako eskaparate lehiaketa. Horren ondorioz, 100.000 pezetako saria eskuratuko du Iraurgik. Bigarren tokian Kanela sailkatu da (50.000 pta.) eta hirugarren postua, berriz, Eguiluzentzat izan da (25.000 pta.). Gisasola burdinakidendak epaimahaiaren aipamen berezia merezi izan du. Guztira, 20 komertziok hartu dute parte aurtengo edizioan.

### ◆ Miguel Angel Murgiondo aske

Aurreko asteazken gauean Guardia Zibilak Miguel Angel Murgiondo bergararra atxilotu zuen ustez ETAri laguntza emateagatik. Gau bat komisaldegian pasatu ondoren, Madrilera eraman zuten epailearen aurrean deklaratzeko. Igandean kargu barik aske utzi zuten eta arratsaldean hainbat herritarrek ongi-etorria egin zioten Plazan.

### ◆ Udal Liburutegia

Kultur Etxeko Udal Liburutegia abenduaren 26tik urtarrilaren 9ra bitartean goizez bakarrik izango da zabalik, 8etatik ordubatera.

SONY
JVC
AIWA
PHILIPS
GRUNDIG
PANASONIC
telkar
Eska ezazu gure aldizkaria, gabonetako eskaintzak aurkituko dituzu bertan. Etxera eramango dizugu.
☎ 76 27 11
AEG
FAGOR
OTSEIN
BALAY
ZANUSSI
SIEMENS

FERNANDEZ

Oihal puskak
Oihalak
San Antonio, 3 ☎ 76 22 93
Ibargarai, 2 ☎ 76 53 22

EDURNE
Merzeria- Lenzeria
Irala, 5 ☎ 76 25 69

Zumelaga
JATETXEA
IGANDETAN ZABALIK!!
San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

# Kapirixoko presidentearekin

# Juantxo Madariaga

## "Oraindik ez dugu lortu herri guztietan antzeko aktibitatea sortzea"

**Kapirixo Deba Garaiko Kultur Ondarea babesteko sortutako elkarteak urtebete egin du dagoeneko. Ostegunean elkartearen Batzar Orokorra izan zen orain arte egindako lanaren balantzea egiteko. Juantxo Madariaga presidenteak benetako lana hemendik aurrera hasiko dela azaldu digu.**

**- Zein da lehen urte honetako balantzea?**

- Bueno, honelako erakundeetan lehen urratsak izaten dira txarrenak: formalidade juridikoak, diru-kontuak, estatutuak, etab., borondatezko lana egiten dugula kontutan izanik gainera. Dena den, hainbat helburu lortu ditugu dagoeneko: langile-kopuru dexente bat izatea (131 bazkide ditu Kapirixok) eta bi edo hiru herritan jadanik oso funtzionamendu ona izatea.

**- Zeintzuk dira herri horiek?**

- Orainarte erantzunik onena Bergaran eta Oñatin lortu dugu. Bestetan ez dugu horrenbesteko interesa pizterik izan. Arrasaten, esate baterako, uste genuena baino bazkide kopuru gutxiago eman da, Elgetan ere beste horrenbeste... Oraindik ez dugu lortu herri guztietan antzeko aktibitatea sortzea. Alde horretatik, arrakasta partziala izan dugula esango nuke.

**- Eta zelan hartu zaituztete erakunde ofizialek?**

- Hasieran mesfidantza pittin bat somatzen genuen beren aldetik, baina orainarteko harremanak nahiko onak izan dira. Gure helburua ondarea ezagutu eta ezagu-


Juantxo Madariaga, Anaje Narbaiza idazkaria eta Rosario Barturen diruzaina.


IBARGUREN PENTSUAK
*Biona* pentsuen biltegia
*Bioter* produktoak eta haziak
San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

ITXASMENDI
ERREKADISTA

Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE, ARETXABALETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

taraztea litzateke eta norbaitek horren kontra egiten badu salatu egingo dugu. Zentzu horretan, Maltzaga-Urbina, Y grekoa edota Eusko Jaurlaritzak erreka ubideei buruz egiten ari den ikerketan gure eritzia plazaratzen saiatu gara. Eta pentsatzen dugu gure ahotsa entzuten dela.

**- Zeintzuk lirateke berehalako aktuazioak?**

- Azkoiti, Plaentxi edota Bergarako eremu megalitiarra seinalizatzeko asmoa daukagu. Bidea markatu, garbitu, kontsolidatu eta panelak jarriko ditugu eta proiektuak 1.600.000 pta.ko aurrekontua izango du. Bergarako Udala, printzipioz, gurekin kolaboratzeko prest azaldu da. Eskoriatzako museoa berriztu, Oñatiko zentral elektrikoa eta Olabarrietan iltzeak egiteko zegoen tailertxo bat berreskuratu edota Arabako kaltzada ere hobetu nahi ditugu. Era berean, baserri eta artisautza munduko erraminten bilduma egin eta erakusketa bat antolatzeko asmoa ere badago.

**- Zein egoeratan aurkitzen da gure ondarea?**

- Azken urteetan obra asko egin dira industria, hirigintza eta baserrietan, batzuk oso ondo eginak eta beste batzuk ez horrenbeste. Galdu diren gauzen zerrenda luzea da, aldaketa izugarriak eman dira eta, esate baterako, baserri mundua zeharo aldatu da: 2. erresidentzia bihurtu da baserria eta patrimonio haundia galdu da. Honekin lotuta, EHNE sindikatuarekin batera lan egin nahi dugu baserriko ondare hori ez galtzeko.

**- Amaitzeko, zein litzateke Kapirixoko bazkidearen erretratu-robota?**

- Ez da hain samurra. Kultur mailan ardura asko duen tipo "kulto" bat lizateke nere ustez. Arlo ezberdinetako unibertsitario asko dago eta jende asko ekolojia eta mendi afiziotik dator. Gero ofizio diferentetako jendea ere badago, adin guztietakoak gainera. Gogoratu, gure ateak zabalik daudela eta interesa duenak UNEDera etortzea besterik ez daukala.

**"Ondarearekin zerikusia duten gai guztietan gure eritzia plazaratzen saiatu gara. Eta pentsatzen dugu gure ahotsa entzuten dela"**


ETXEBERRIA

ERLOJUDENDA-BITXIDENDA
Bidekurutzeta, 16 • ☎ 76 23 94

*Bergarako ETXEBERRIA Erlojutegi-bitxitegiak Eguberri eta Urte Berri jai zoriontsuak opa dizkizue.*

**Egun hauetarako oparia aukeratzeko orduan ikusi ezazue ETXEBERRIAk erloju, bitxi eta edergailutan duen aukera. Merezi du eta!! Gainera, erosketak egiteagatik urtarrilaren 9 eta 10ean egingo diren itsuen zozketarekin batera 200.000 eta 100.000 pezetako sariak banatuko ditu bertan zuen gustoko erloju, bitxi edo oparia aukeratu dezazuen. Zatoz, lehenbailehen!!**

BEDELKAR

BERGARAKO DENDARIEN ELKARTEA

# *Astelehenean, hilak 26, Gabonetako ofertei ekingo diegu, honako denda hauetan:*

| | | |
|---|---|---|
| AGIRRE | LAKET | URKIOLA |
| AROA | LIDE | YAZKI |
| CRISTINA | PRAKAK | YAZKI GAZTE |
| EGIZABAL | SIASKA | ZATOIA |
| JANDEN | SUBIJAI | ZUBIKUA |

Erlojutegia
IRUDI
Bitxitegia

Allianz RAS
ASEGURUAK

Zubizarreta

Deco - textil
ZANGUITU
Alfonbrak

ILEAPAINDEGIA
Jean Louis David

## IBARGARAI aldeko Merkatarien Elkartea BERGARA

**BI LAGUNENTZAKO BIDAIA**
zozketatuko dugu gure bezeroen artean:

- **CANARIETA**ra, 8 egunerako eta mantenu osoarekin.
- Edo **PAS DE LA CASA**ra (**ANDORRA**), 6 egunerako, mantenu osoa eta erremonteak doan.

Zozketa 1995ko urtarrilaren 9an izango da.

ETXEPARE
BILINTX

Egon
Kafetegia

TXORN

LAGUN ARO
RAC

IZOZTUAK
7 MARES

Flores Ninika

M2
ERROTULOAK

Prontaprint!
INPRIMATEGIA

Pepelu
ILEAPAINDEGIA

KALITATEA
Urcelay
HARATEGIA

J. Larrañaga
MultiOpticas

winterthur
ASEGURUAK

URRATS
TABERNA

# Gabonak

GEHIGARRI BEREZIA

## Gabonetako agenda



## Alai taldearekin berriketan

## *Jostailuak, haurren Olentzeroak*

# Alai Taldea

**Gabon egunean herriko kaleak Gabon kantak abesten dituzten taldez betetzen dira eta horien artean, beteranoenak seguruenik, Alai taldekoak ditugu.**

Alai taldea une honetan 14 kidek osatzen dute eta gaur egun Gabon egunean eta Santa Ageda egunean irtetzen dira bakarrik. Baina orain dela 10 urtera arte edo, herriz herri eta auzoz auzo ere ibiltzen ziren kantari.

Hasiera batean Justo Idigoras izan zen taldeko zuzendaria, eta gaur egun Udal Musika Bandako zuzendaria den Alfredo Gonzàlez ere bi urtez taldeko zuzendaria izan zen. *"Alfredo zebilenean asko irtetzen genuen kanpora. Euskal musika herrikoia abesten genuen eta nahiko erantzun ona jasotzen genuen. Herrietara ezer kobratu barik joaten ginen, afaritxoren baten truke edo joaten ginen"* adierazi digu Justo Idigorasek.

Alai taldeak, hasiera batean Lagun Artea izena izan zuen, baina poliki poliki jendeak taldea utzi eta Alai taldea osatu zuten. Hasierako taldetik gelditzen diren bakarrak Justo Idigoras eta Peio Garitano dira. Alai taldetik gero Aritzeta abesbatza sortu zen 80. hamarkadaren hasieran.

Dagoeneko bihar egingo dutena ondo zehaztuta daukate. *"Bostak aldean Mizpirualdera joango gara, hortik, kalean abesti pare bat kantatu ondoren, Monja Zaharretara joango gara. Hor beti ematen dizkigute ardo goxoa eta pasta batzuk eta gero kalean zehar ibiliko gara kaleari Gabon giroa emanez"* dio Peio Garitanok.

Egun osoan zehar hilabete inguru entsaiatzen aritu diren abestiak kantatuko dizkigute Alai taldea osatzen duten, Agustin eta Jabi Badiola, Juan Jose Arriaran, Aitor Eraña, Gotzon Bikuña, Peio Garitano, Angel Balzategi, Xabier Olabarria, Jose Antonio Aperribay, Alberto Askasibar, Jose Ignacio Uribesalgo, Jose Arrieta, Justo Idigoras eta Ramon Amosarrainek.

**Gabon egunean Gabon kantak abestera kalera irtetzen diren taldeen artean urte gehien daramatzatenak dira**



Kalez-kale ibiltzeaz gain, urtero Monja Zaharretara bisitatxoa egiten dute.



KORTA-ZAR
Txokolategia
*Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea*
OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK
Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

Siaska
Dena zure haurrarentzako
San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

# ARDATZA

## Brikolaketa

- KOADROEN ENMARKAZIOA
- ESKULANAK
  - Torneatuak
  - Erretxina
  - Kutxak
  - Pertxeroak
  - Pinturak (kristala eta akrilikoa)
- ATEAK
- KIT ALTZARIAK



**DENDA: Masterreka, 4 ☎ 76 18 93 AROZTEGIA: Masterreka, 18**

---

# FUTBOLIN LAM TOUR 94

## GASTEIZ I. OPENA

**OSTEGUNA ABENDUAK 29**
**arratsaldeko 5etan**

- LARRI ETXEA TABERNA
  Zapateria, 38
- ZULAPE
  Pintoreria, 78
- HERRIKO TABERNA
  San Antonio kantoia
- ITSASO
  Nueva Fuera
- GAZTETXEA

IZEN EMATEA: 1.500 pzta.
Aurretik: 1.000 pzta.
EPEA:
Abenduaren 24ra arte.
BERGARAN:
Ollagorra, Arrano eta Pol-Polen

ZOZKETA:
Larri Etxea tabernan
arratsaldeko 4etan
FINALA:
Gaztetxean
Gaueko 10etan

SARIAK

1: 50.000
2: 25.000
3: 15.000
4: 10.000
5-8: 5.000

ANTOLATZAILEA

LAM

Tfnoak:
45 21 93 Donostia
76 29 91 Bergara
76 12 00 Bergara




GUIPUZCOANA

*Paketean garraio eta banaketa*

**BERGARA**

*San Juan Erreka. Elgetara bidea*

*Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54 25*

# Bazkide berrien bila

**JARDUN Elkarteak martxan jarri duen bazkide kanpaina aurkeztu zen atzo prentsaurrean.**

## *JARDUNek bazkide kanpaina jarri du martxan. Hainbat ekitaldi antolatu ditu Gabonetarako*



Eba Alberdi Jarduneko dinamizatzailea, Andoni Etxeberria Barne-Jestioko kidea eta Jose Angel Mikeo elkarteko presidentea osteguneko prentsaurrekoan.

Jardun Elkartea 1990. urtean jarri zen martxan herrian euskararen erabilera bultzeko asmoz; orduan 225 bazituen ere, gaur egun 507 lagun dira elkarteko bazkide. Orain, Gabon jaiak aprobetxatuz, bazkide gehiago lortzeko kanpaina jarri da martxan.

Jose Angel Mikeoren hitzetan, *"euskaltzaleak izan arren, bazkide ez direnengana heltzea da gure helburu nagusia"*. Mikeok beste 100 bat bazkide lortzeko itxaropena azaldu zuen. Andoni Etxeberriak azpimarratu zuen moduan, *"Jardun elkartea ez ezagutzeaz aparte, bazkide egiteko arrazoi gehiago duten hainbat sektore badaude, irakaskuntza esaterako. Jardun zabaltzea komeni da. Eta bazkide izatea ez da urteko kuota ordaintzera mugatu behar, bazkide aktiboen bila joan behar gara. Bestalde, nabarmena da Berrigarako harpidedun eta irakurleak eta, Jarduneko bazkide kopuruaren artean dagoen desproportzioa"*.

### Errebistatxoa

Eba Alberdik ekitaldi ezberdinen berri eman zuen. Gaurko Berrigara aldizkariarekin batera, esate baterako, 8 orrialdeko errebistatxo bat banatuko da irakurleek Jarduneko funtzionamenduaren berri izan dezaten. Bertan, Jarduneko Gazte Taldearen, Kultur Taldearen, Komunikabide Taldearen eta beste hainbat talderen xehetasunak ematen dira. Guztira, errebistatxoaren 5.500 ale kaleratu dira; errebistarekin batera jasotzerik izan ez dutenek, asteartean asteazkenean eta ostegunean (hilak 27, 28 eta 29) Plazan jarriko diren mahai informatiboetan eskuratzeko aukera izango dute. Bertan, argibideak jaso eta euskal abizenak euskal grafiara aldatzeko eskakizunak egin ahal izango dira.

### Bazkide txartelak

Era berean, Ritxi Azkargortaren margo batean oinarritutako eskuko egutegiak kaleratu ditu Jardunek eta bazkideei zorion txartelak eta urtero banatzen den paretan ezegitzeko egutegia bidaliko zaizkie.

Bestalde, datorren asteko Berrigaran bazkide egiteko gonbidapena luzatuko zaie aldizkariaren harpidedun guztiei. Gogoratu urteko kuota 4.000 pezetakoa dela; langabetu eta ikasleek, berriz, 500 pezeta besterik ez dute ordaindu behar. Gabonetan zehar, bazkide txartela uzteko kajak izango dira Antxoni, Kortazar eta Pol-Polen.

Eta, azkenik, antolatutako ekitaldiei dagokienez, astearte gauean Jazz taldearen emanaldia izango da Pol-Polen, asteazkenean Jon Lazkanoren "Pakistan" diapositiba emanaldia 8etan UNEDen eta ostiralean, 10.30etan Zabalotegin, Jon eta Aitor Sarasua anaiek "Fauna txiki bat bertso berritan" izeneko bertso emanaldia eskeiniko dute Juan Luis Lekunberri pianujolearen laguntzaz. Ekitaldi hauek sakonago hurrengo orrian.

**JARDUNen saiakera berri honen bitartez, 100 bazkide gehiago lortu nahi dira. Horrela, 600 bazkide izango lituzke Bergarako euskara elkarteak**



# Jardun

**Ion Lazkano**, eskaladore bergararra munduko mendirik ospetsuenetako paretarik zailenak eskaltu ditu. Oraingo honetan, Pakistan inguruan ateratako diapositiba sorta bikaina erakutsiko digu.
**Aasteazkenean, 28, iluntzeko 8etan, UNEDen.**



**Jon** eta **Aitor Sarasua** anaiek "Fauna txiki bat bertso berritan" izeneko bertso saioa eskainiko dute Juan Luis Lekunberri pianujolearen laguntzaz. Durangoko Diska eta Liburuen Azokan eskaini berri dituzten idatzitako bertsoak kantatuko dituzte Sarasua anaiek.
**Ostiralean, 30, gaueko 10.30etan, Zabalotegiko aretoan.**



**Jazz Taldeak**, Musika Eskola inguruan sortutako taldeak, New Orleanseko doinuz blai eginda utziko gaitu.
**Aasteartean, 27, gaueko 10.30etan, Pol-Polen.**


**TOKI-ONA**
**Bodegoia-taberna**
*Eguneroko janariak / Txitxizotzak*
*Kazolatxoak / Txabierroak*
Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

**Sugoi**
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

**MUGICA**
GOXOTEGIA
• Pastelak
• Errellenoak
• Tostoiak
• Tartak
Artekale, 3
☎ 76 10 34

**SUBIJAI**
**Gazteentzako moda**
Irizar, 1 ☎ 76 42 41

**GURIDI altzariak**
**Era guztietako altzariak**
Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 0 2

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

# Haur guztiak daude Olentzeroren zai

**Heldu dira Gabonak eta horrekin batera, haurrak batez ere, oparien zai izaten dira. Olentzero dela edo Erregeak direla, gure etxeak jostailuz betetzen dira. Halere jostailuak aukeratzeko orduan kontu handia eduki behar da. Pakita Urkaregi pedagogoarekin izan dugun elkarrizketarekin, jostailuak aukeratzeko erizpide batzuk azaltzen dizkizuegu.**

## Pakita Urkaregi pedagogoarekin berriketan

**- Umeari jolasten bakarrik utzi ala lagundu egin behar zaio?**

- Umeari eskaini egin behar zaio, pixkat eman behar zaio. Gurasoek umeekin jolastu behar dute. Gainera telebistak horrelako eragina duenez, jostailua familia artean harremana izateko medio bat izan behar da.

**- Umeek ondo pasatzeko beharrezkoa dute jostailua edo badira beste alternatiba batzuk?**

- Beste alternatiba batzuk badira, baina jostailuak behar ditu. Horrekin umea esploratuz doa. Halere gehiegi ere ez. Ez zaie eskatzen duten guztia eman behar, ematen bazaie ez dute interesik. Umeari dena aldez aurretik ematen bazaio, dena dauka eta azkenean ez dakite zer eskatu. Orduan hobe da gutxi ematea, asko ematea baino, umeak kuriositatea izan dezan.

**- Telebistan irtetzen diren jostailuei buruz, ze iritzi duzu?**

- Egia esan telebista gutxi ikusten dut. Baina ikusten dut eragin handia duela, eta agresibitatea bultzatzen du. Telebista itzaltzen jakin behar den moduan, jostailuarekin ere berdina gertatzen da. Jostailu bakoitzak bere funtzioa betetzen du, baina neurriz erabili behar dira.



"Gurasoek umeekin jolastu nehar dute"

## *"Bideojokuek dependentzia sortzen dute umeengan"*

**- Bideojokuak azkenaldian eztabaidan daude. Batzuk onak direla diote eta beste batzuk, aldiz, kaltegarriak direla. Zuk zer diozu?**

- Umeek nahiko telebista ikusten dute, berriz ere pantaila baten aurrean egoteko. Halere sekulako arrakasta izan dute, alde batetik pantailari begira jarraitzen du eta bestetik umea, bera, da ▶▶

